

ARABA, BIZKAIA ETA GIPIZKOAKO FINANTZA PUBLIKOAK, DIKTADURA, 1929KO KRISI EKONOMIKO ETA II. ERREPUBLIKAREN GARAIAN (1925-1937). SUITZAREKIN ALDARAKETA ETA FEDERALISMO FISKALAREN TEORIARI EKARPENA

Tesiaren egilea: Mikel Erkoreka Gonzalez

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Garaiko Historia Saila

Tesi-zuzendaria: Joseba Agirreazkuenaga eta Eduardo J. Alonso

Tesiaren laburpena:

Tesi internazional honetan kontzertupeko autogobernu fiskal eta finantzarioaren sistema ikertzen da, Kontzertu Ekonomikoaren lehen indarraldi-fasearen azken txanpan zehar (1925-1937).

Lehen eskuko aurrekontu-likidazio originalen analisisan oinarrituz, metodologia kuantitatiboaren bidetik sakontzen da, ikuspegi finantzario zehatza lortuz. Hartara, kontzertupeko sistema osatzen zuten eta orain arte ezezagunak ziren hainbat aldagai eta barne-fluxu kuantifikatu dira aurrenekoz. Metodologia kuantitatiboak ez du soilik garaiko estatistika osagabeek pairaturiko hutsuneak betetzeko balio izan; lorturiko emaitzekiko hurbilketa kritikoak garaiko autogobernu-sistemaren egitura eta nondik norakoen jakintzan barrenatzea ahalbidetu du.

Ikerketa hiru zatitan banatzen da. Lehenengoan, Estatu, Aldundi eta udalerrien arteko erlazio fiskal eta gobernuarteko botere zein erantzukizunen banaketa-eredua aztertzen da. Aurrekontuen analisisan oinarrituz batik bat, administrazio-maila bakoitzak jasotzen zituen sarreraren eta gauzatzen zituen gastuen analisi kuantitatibo eta kualitatiboa burutu da.

Bigarrenean, kontzertupeko sistema fiskala Europa mailako federalismo fiskalaren ikerketa-korronteekin lerrotzen da. Horretarako, kontzertupeko sistema fiskala, Suitzako gerrarteko sistema federalarekin alderatu da. Federalismo Fiskalaren Teoriaren argitan, euskal sistema asimetrikoaren eta suitzar sistema simetrikoaren arteko konparaketa burutzen da. Gaur egunean mundu-mailan eta bereziki Europar Batasunaren senean gaurkotasan handia duen federalismo fiskalaren eta administrazio fiskalaren eredu zentralisten arteko eztabaiden marko teorikoa aintzat hartuz, kasu-azterketa anitzez osatzen den federalismo fiskalaren ikerketa-esparruari ekarpen berria egiten zaio.

Hirugarren zatian, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundien jardunbide eta kudeaketa finantzarioaren bilakaera aztertzen da, 1929ko krisi ekonomiko globalak eragindako konbultsio ekonomiko-fiskalen eta 1931z geroztik gertatu ziren aldaketa politiko-instituzionalen testuinguruan. Mundu-mailako ziklo-aldaketaren zipriztinek alde batetik, eta barneko ezegonkortasun politiko-sozialek bestetik, krisi ekonomiko larri eta sakona eragin zuten euskal probintzietan. Krisi-abaguneak, ogasun probintzialen esku-hartze ahalmena ez ezik, kontzertupeko sistema fiskal eta finantzarioaren erresilientzia-gaitasuna ebaluatzeko ere testuinguru ezinhobea eskaini du. Horretaz aparte, 2007ko krisi ekonomikoaren ondoren bultzada nabarmena jaso duen 1929ko krisi ekonomikoaren gaineko ikerketa-korronteari ekarpen enpiriko berri bat eskaintzen dio tesiak.